



Programa
escolar
BALONCESTO



Iruñean, 2019ko apirilaren 1an

Heziketa fisikoko departamenduko nagusia / Saskibaloi saileko arduradunari

Irakasle agurgarriak:

Beste urte batez eta lehendabiziko ekitaldian geneukan ilusio berdinarekin, berriz ere zuekin harremanetan jartzen gara **Nafarroako XIX. 3X3 saskibaloi ekitaldiaren** berri emateko.

Aurreko hamasei ekitaldi arrakastatsuen ondoren, non eskola kirolaren erreferente den programa hau egonkortu egin den, zuen aldetik babes ikaragarria izaten jarraitzen dugu (urte hauetan zehar 90 ikastetxe baino gehiagok parte hartu duzue).

Programa ezagutzen ez duzuen irakasleontzat, modu erraz batean laburbiltzen dizuegu zertan datzan programak. Hiru-hiruren (3X3) aurkako txapelketa bat da eta ondorengo faseak izango ditu:

- **Lehendabiziko fasea, barneko fasea**, non ikastetxe bakoitzak bere ordezkariak aukeratzen ditu, bakoitzak erabakitzen duen moduaren arabera. Heziketa fisikoko saioetan, errekreoetan... barneko sailkatze fase bat egitea gomendatzen da.
- **Bigarren fasea, autonomikoa**, Nafarroako saskibaloi federazioak antolatua eta aurrera eramana, non ikastetxe bakoitzak eskubidea du gehienez bi talde aurkeztera modalitate bakoitzeko. Egunean ospatzen da txapelketa eta talde bakoitzak taldekako fase baten bidez gutxienez bi partidu jokatzeko ziurtatuta dauzka. Ondoren, kopa sistemaren bidez jokatzeko dute. Ekitaldia arratsaldeko 7ak aldera amaituko da.

Jarduera hau aurrera eramateko aurreikusten diren datak hurrengoak dira:

- **Ikastetxeko txapelketa:** Ekainaren hasierarako amaitua izatea gomendatzen da.
- **Txapelketa autonomikoa:** Ekainak 9, igandea, Iruñeko Gaztelu plazan.

Azken fase hau behar bezala diseinatzeko, behar-beharrezkoa dugu maila bakoitzeko modalitateetan zenbat taldek parte hartuko duten jakitea. Informazio honekin, txapelketako sistema, partiduen ordutegiak eta Iruñaz kanpokoak diren taldeak, eta beraiek horrela eskatuta (betiere autobus bakoitzaren %70a betetzen bada) partiduetara joan-etorriak egiteko eskaintzen ditugun autobusen ordutegiak eta ibilbideak diseinatu ahalko ditugu. Horregatik, txapelketan parte hartzeko, atxikituta bidaltzen dizuegun izen-emate orria betetzerako garaian, gurutze



Programa
escolar
BALONCESTO



baten bidez, zein modalitatetan parte hartuko duzuen markatu; era berean, modalitate bakoitzean ikastetxeko talde bat edo bik parte hartuko duten zehaztu eta garraio zerbitzuaren eskaera egingo duzuen ala ez adierazi.

Orri hori guri helduarazi beharko diguzue **maiatzaren 4a baino lehen** ondorengo helbide honetara bidaliz: peb@fnbaloncesto.com

Txapelketa hau ondorengo mailetan jokatu da:

- Premini 2009 eta 2010, LHko 3. eta 4. Gizonezkoak, emakumezkoak eta mistoa.
- Minibasket 2007 eta 2008, LHko 5. eta 6. Gizonezkoak, emakumezkoak eta mistoa.
- Haurrak 2005 eta 2006, DBHko 1. eta 2. Gizonezkoak eta emakumezkoak.
- Kadeteak 2003 eta 2004, DBHko 3. eta 4. Gizonezkoak eta emakumezkoak.

Gogoratu ez duzuela zertan maila berean modalitate guztietan izena eman beharrik eta maila bakoitzean parte hartzaile guztiak adierazitako urte horietan jaioak izan behar direla, ezin dira ez helduagoak ezta gazteagoak ere izan. Aldi berean, mailaren batean lehiatzeko, behar adina talde misto egongo ez balira, hauek gizonezkoen mailan sartuko lirateke. Esan beharrik ez dago, talde bakoitzeko parte hartzaile guztiak zuen ikastetxeetan matrikulatuak egon behar direla.



Txapelketaz eta jolas eremuez gozatzeaz gain, parte hartzaile bakoitzak jardueraren kamiseta tekniko bat jasoko du. Aldi berean, parte hartzaileen artean opari ezberdinak zozketatuko dira.

Talde bakoitzeko izen-emate kuota 10 eurokoa da eta ordainketa banku transferentziaren bidez egingo da, Caixa banketxearen ondorengo kontu korrontean: ES46 2100 51 96162200120339. Banku transferentziaren bidez egiten bada, ordainketa agiriaren kopia izen-emate orriari atxikitu beharko zaio eta Nafarroako Saskibaloia Federazioan kontua izaten bada horrela adierazi beharko da izen-emate orrian. Aurten gaizki ulertuak eta momentu ezatseginak saihesteko, txapelketa hasterakoan eskuz ordaintzeko aukera deuseztatu egin da.

Maiatzaren 27an txapelketako ordutegi guztien inguruko informazioa jasoko duzue eta maiatzaren 29 arte, autobus zerbitzua erabiltzeko eskaera eginaz gero, eta dagoeneko ez bazaizue interesatzen, uko egiteko aukera izango zenukete.

Txapelketan parte hartuko duten taldeen izen emateak egiterako garaian, arduratsuak izatearen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Izan ere, antolakuntzari abisatu gabeko taldeen hutsegiteek,



Programa
escolar
BALONCESTO



txapelketaren funtzionamenduari kalte egiten dio eta zer esanik ez, parte hartzera datozen taldeei.

Izen-emate orria betetzerakoan, ez ahaztu argi eta garbi zuen helbide elektronikoa eta mugikorraren zenbakia idazteaz, modu honen bidez dokumentazio guztia edota edozein aldaketaren berri azkartasunez jankinaraziko baitizuegu.

Aurten ere gure web orrialdean www.fnbaloncesto.com, albisteen atalean eta "eskola programa"-ren barne txapelketari buruz ateratzen den informazio guztia eskegiko dugu.

Gogoratu informazio gehiago nahi izatekotan, nahiz edozein zalantza edo arazoren aurrean gurekin harremanetan jarri zaitezketela.

Telefonoa: 948 210 799

E-mail: peb@fnbaloncesto.com

Whatsapp: 619884394

Besterik gabe, agur bero bat.

Natxo Ilundáin

NSF Idazkari Orokorra

Raúl López

SEP koordinatzailea